



Semblante Andaluzen XX. urteurrena.- Ospakizunetan murgildurik ibili da aste honetan herriko Semblante Andaluz elkarte. Asteazkenean "20 años entre folklore y fogones" liburua aurkeztu ostean, larunbat arratsaldean "Sueño Andaluz" ikuskizuna eskaini zuten Manuel Lekuona kultur-etxean. Bertaratu ziren herritarrek gozatu ederra hartu zuten Andaluzia aldeko kantu, dantza eta abestiak ikusi eta entzunez. Bestalde, igandean XX. urteurrenako bazkari berezia antolatu zuten elkarteak Atso Bakarren duen egoitzan. Bapo jan ondoren, "Amigos del Sur" taldearen emanaldia izan zen entzungai elkartearen. Bertan, dantzatzera ere animatu ziren hainbat lagun, eta ez zen sevillanarik falta izan hain egun berezian.

3 MUSIKA

Pianoa eta ahotsa uztartuta entzuteko aukera ostiralean

Iñaki Salvador eta Ainara Ortega musikariek "Kantagin jazz" ikuskizuna eskaini zuten ostiral iluntzean Manuel Lekuona kultur-etxean. Kutxaren gizarte ekimen baten barnean kokatuta zegoen kontzertuak maila handia izan zuen eta asko gozatu zuten herritarrek bi artisten ikuskizuna.

5 GAZTEAK

Jalgi Hadi Garaipenera! gazte ugari bilduz

Azkenaldian aktibo dabilta herriko gazteak. Ostegunean greba egiteaz gain, asteburuan programa betea izan zuten, mendi martxa, bertso-bazkaria eta Nafarroako konkistari buruzko hitzaldia prestatuz. Hurrengo zita, apirilaren 6 eta 7an, Saratik Lesakara joango den Gazte Martxa izango dute.

6 KIROLA

LOKEko gimnastak Gipuzkoako txapelketara jauzi

LOKEko gimnastek Eskolarteko eta Amateur mailako txapelketako bigarren saioa izan zuten aurreko asteburuan. Bertan, Aizpea Arroyok, Ariadne Aguadok eta kadete taldeak Gipuzkoako txapelketarako txartela lortu zuten. Bestalde, larunbatean LOKEko gimnasta guztiak erakustaldi ederra eskaini zuten.



Donde las estrellas son ellos

Txakurrentzako ileapaindegia

Txakur eta katuen denda



advantix

FRONTLINE
SPRAY

Eskaintza bereziak

AURRERATU ZAITEZ!

%15eko deskontua


garrapata eta arkakusoen aurkako produktuetan. Babestu zure txakurra



Green enparantza 2 behea (Urbarteko parkearen parean) • Lasarte-Oria 20610
Tel.: 943 576313 • info@canneslasarte.com • www.canneslasarte.com

Adituak dio

Talaiatik



Xabier Andonegi
Apaiza

Aste Santua

Astea eta Santua; zertaz ari gara? Aste Santua deituriko horretan, kristau garenok ongi dakigu zertaz ari garen baina, agian, gure gaurko giro kulturean, beste jende askok nahiko gutxi daki horretaz. Astea esatean, aste baten barruan gertatzen den zerbaitez ari garela esan nahi da. Nazaretoko Jesusen bizitzako azken astean gertatu zena? Bere bizitzaren azkenean atxilotu, epaitu, kondenatu eta hil egin zutela. Horri, Jesusen pasioa diogu.

Kristauok hori dena, handikiro ospatzen dugu. Ospatu bai, baina ospatu zer? Atxiloketa, epaiketa, kondena, hilketa? Ez, ez da hori ospatzen duguna. Guzti horren nondik eta norakoa. Hori bai, horixe da ospatzen duguna. Bizitza baten zergatia eta helburua, hain zuzen ere. Zergatik egin zioten guzti hori? Bere garaiko erlijio agintari eta herri agintariekin gogor jardun zuelako. Batzuei erlijio itxurakeria salatu zien eta besteek politikaren maltzurkeria. Zer bilatzen zuen horrelakoekin? Berak zioen bezala, "espirituz eta benetan" bizitzea; hau da, eguneroan egitari leku egitea, maitasunari, askatasunari eta justiziarri. Eta guzti hori gizartean diren "azkenekoak" (biktimak), lehen mailan jarriaz, beti ere, horien eskubideak defendatuaz eta errukiaren xamurtasuna, bizitzaren gogorra gainditzeko, eredu hartuaz.

Erramu igandearekin hasten gara Aste Santua (ba dirudi jende asko dagoela atzetik, gorazarre eginaz, baina ez). Ostegun Santuan gure kristau bizitzaren ardatza ospatzen dugu (oinak garbitzea eta elkartasunaren proiektua eskertzea, eukaristian eta Jaunaren gurtzan). Ostiralean berriz, heriotza. Heriotzaren seriotasuna eta erailtearen dolua (gurutze bidea) eta bukatzeko Piztueraren poza (larunbat eta igandea). Pazkoa; bizitza berria; azken hitza; salbamena; askapena; zerua; piztuera.

Oporrak ala fedea?

Oporraldiak beti dira ongi etorriak eta datozen egunotan herritar askok izango dute jai egun batzuekin disfrutatzeko parada. Hala ere, Aste Santuko oporrak dira, alegia, eliza katolikoak hala izendatuta santua den aste bati dagozkion jaiak. Sinisdunek beste modu batera bizi dituzten egunak dira hauek eta herrian fede horren lekuko dira ostiraleko gurutze bidea eta larunbata gauean eta igandean egiten diren meza bereziak, Jaunaren berpiztea ospatzeko elkartzen dira igandean.

Zertan geratzen dira ordea egun hauek fededun ez direnentzat? edota beste erlijio batzuetako bizilagunentzat? Galdera honi norberak bilatu beharko lioke erantzuna, argi dagoena da denentzat uda iritsi arteko oporraldi bakarra dela

hau eta gustura hartzen dela halako parentesia. Betiere indarberrituta lanera, eskolara edota orohar eguneroko bizitzara bueltatzeko asmotan.

Askotan lan egutegi ofizialari erreparatuaz, koherentziagatik, ideia edota sinismen ezberdinak medio, ezarritako egun horietan lan egin ahal izatea da aldarria baina kasu honetan zertan geratuko litzateke Aste Santua? Zehazki esanda, egutegi horren baitan egun hauek sinisdun ez direnentzat lanegun izan beharko lukete? Hortxe egun hauen atarian luzatutako hausnarketa. Izan ere, orain gure inguruan egutegi alternatiboek atea ireki zaiela ikusita, akaso hauen inguruko eztabaida litzateke landu beharreko hurrengo pausua.

Hitz eta pitz

Zer egiten duzu Aste Santua ?



Amaia-Mariangeles Zabala
Herria zainduko dugu Aste Santuan. Elizara joaten gara baina ez egunero Aste Santu osoan. Bereziak izaten dira elizkizunak, baina ez da lehen bezala, adinekoak soilik joaten gara, gu izango gara gazteenak. Orain oporretara joaten dira, lan asko egiten da nonbait eta atsedean hartzeko, baina ez dut gaizki ikusten. Bizitza aldatu egin da. Gu normalean hemen gaude, ez gara ateratzen.



Juan Linde
Aste Santuan ez naiz hemen ingurutik ateratzen, Lasarte-Orian ez banago, Donostian egongo naiz. Gainera elizara joateko ohiturarik ez daukat, jaungoikoari eskerak atea naiz eta. Sinesten duena errespetatu, errespetatzen dut, baina nik ez dut sinesten. Jai egun bezala hartzen dira, lanetik deskonektatu... Batez ere gazteentzat dira onak, jai eta opor egunak har ditzaten.



Edurne Sanchez
Ez naiz fededuna, ez dut sinesten, beraz, ez naiz Aste Santuko prozesio eta horrelakoetara joaten, eta elizara hiletetara soilik. Familiakoe-kin egoteko, ona egiten badu ibiltzera joateko eta etzanda egoteko egunak dira. Hemen denetik daukagu, mendia eta itsasoa, zertarako joango gara kanpora? Agian diru asko edukiko bagenu joango ginateteke oporretara.



Amaia Uribe
Normalean Aste Santuan Caceresera joaten gara, Rio-lobos, Plasencia ondoko herri batera, bikotea hangoa da eta familia ikusi, lasai egon eta ingurua bisitatzera. Aurten hamar bat egun hartuko ditugu. Herrian bertan egiten dira prozesioak baina guk ez dugu horrelakoetan parte hartzen. Pasadan ikusi soilik. Han bizimodua oso lasaia da eta hemengo estretetik alde egiteko ondo dator.

Iruditan



Prozesioa herriko Aste Santuko ekimen garrantzitsua zenekoa. Lasarte-Oria zuri-beltzean.


Ostiral santuan, prozesioa herrian barrena

1958. urteko irudia ekarri dugu gaurkoan. Ikusten dugun prozesio hau dagoeneko ez da herrian burutzen baina duela 60 urte kontua bestelakoa zen eta kalera ateratzen zituen lasarte-oriarrak. Ikusten den moduan Kristo Etzanaren irudia prozesioan ateratzen zuten garai hartan eta irudiarri lagunduta elizgizonen gain, herriko beste agintariek ere parte hartzen zuten hala nola guardia zibila, izan ere koartela garai hartan Sasoeta aldean zegoela. Kristo Etzanaren atzetik Ama Birgina ere eramaten dute Goiko kalerantz.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

KANTAGINJAZZ



Ikuskizun ederra eskaini zuten Ainara Ortega eta Iñaki Salvador musikariek Kutxak antolatutako kontzertuan.

Pianoa eta ahotsa uztartuz

Ostiraleko “kantuginjazz” kontzertuan, Ainara Ortega ahots bikaina Iñaki Salvadorren pianoaren doinu ederrekin josi zen

“Kantuginjazz” ikuskizuna eskaini zuten Iñaki Salvador eta Ainara Ortega musikariek ostiral iluntzean Manuel Lekuona kultur-etxean. Kutxaren gizarte ekimen baten banean kokatuta zegoen kontzertua, eta beraz, dohainik gozatu ahal izan zuten herritarrek bi artisten ikuskizuna.

Iñaki Salvador musikari donostiarra piano-jole, konpositore, Musikene-

ko jazz-piano irakasle, sortzaile eta musika moldatzailea da.

Auto didakta izan da betidanik, batez ere jazz eta musika modernoa jorrazterako orduan. Hainbat artistekin partekatu ditu bere musika abileziak, bereziki, Espainiako jazz musikari garrantzitsuen alboan aritu da.

Urrezko kolaboratzaile

Euskal Herriko bakarlarri famatuaren alboan ere ibili izan da Iñaki Salvador, tartean Mikel Laboa, Mikel Markez eta Imanolen laguntzaile izateko ohorea eduki du.

Ostiraleko ikuskizuna

Euskal talde historikoen hainbat bertsio jo zituzten, tartean Mikel Laboa edota Oskorriren kanta ezagunak besteak beste.

Gozatu ederra hartu zuten Manuel Lekuona kultur-etxera hurbildu ziren herritarrek. Izan ere, pianoaren goxotasuna Ainara Ortega ahotsarekin uztartzean, denboran atzera salto egiteko aukera eskaini baitzuten garai bateko taldeen kantuak interpreta-tzean.

Isiltasuna eta argi leunarekin jolastuz, giro intimista batean burutu zuten kalitate handia izan zuen kontzertua.

PSE-EE

Udaleko lan egutegiaren aurka

Jesus Zaballos Lasarte-Oriako sozialisten ordezkariak jakin arazi duenez, Gobernuordezkariari eskatu dio udaleko lan egutegi alternatiboaren gaia dela eta honetan esku hartzeko. Eskakizun hau egiteko erabakia udalean duela hiru hilabete aurkeztutako errekursoaren harira datorrela dio izan ere, “ez da honen inguruan beste berririk izan”. Herriko PSE-EEko ordezkariak nahi du gobernuordezkariak berak alkateari esatea bere eginkizunetatik kanpo dagoela lan egutegia egitearen ardura. Donostiako udaletxean dagoeneko hau egin dela azpimarratu nahi izan du eta Bilduk osatutako udal gobernuak atzera egin behar izan duela gaitz honetan.

IKASTAROAK

Eskaintza zabala gazteentzat

Udaberriko gazte ikastaroetan izena emateko epea gaur hasten da Manuel Lekuonako Gazteentzako informazio bulegoan. Aukeren artean dira estudioko argazkigintza, argazkigintza eta modan espezializatutako makillajea, fantasiako bitxiak, batuka, txalaparta, Erromanikoa Euskal Herrian, josteta eta konponketak, zeinuen mintzaira, latinoamerikar dantzak eta sabel-dantza besteak beste. Lasarte-Orian erroldatutako herritarrentzat 25,30 euroko prezioa izango dute ikastaroek eta ez erroldatuek berriz 44,60 euro ordaindu beharko dituzte. Epea apirilaren 12rarte izango da zabalik.

TURISMOA

Herrira turismoa erakartzeko lanean

Donostialdeko turismoa sustatzeko lanean ari dira hainbat eragilek. Hau dela eta bilerak antolatu dira eta hauen artean bigarrena aurreko astean burutu zen Urrietako Lekaio kultur-etxean.

Bertan bildu ziren Miren Etxebeste, Eusko Jaurlaritzako Turismo Zuzendaritzako Teknikaria, Xabier Eleizegi Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo Teknikaria eta Ainhoa Amundarain BEHEMENDI-Donostialdea Turismoguneko teknikaria beste hainbat eskualdeko eragile publiko eta pribatuekin. Guztira Astigarraga, Hernani, Andoain, Usurbil, Lasarte-Oria eta Urrietako ordezkariak izan ziren bildutako 17 lagunen artean.

Bilera honetan landu ziren Donostialdeko turismoa sustatzeko planaren oinarri eta ildo estrategikoak, jardunbide egokien programaren hasiera, Anfitrioiak Programa, 2012ko lehiakortasun turistikorako diru laguntzak eta beste hainbat. Aipatutako ideien artean, Donostialdea eskualdea SEVATUR turismo azokan parte hartzeaz hitz egin zen baita ekainean izango den I. Astigarragako Ilarraren egunean egotearena.

AISIA

Txapelketa gozoa Okendo plazan

Sukaldaritzan murgilduko ziren ordu batzuetan Gazte Klubeko gaztetxoak. Okendo plazan ostiralean postre txapelketa egin zuten 17:30tatik aurrera. Hauek prestatzeko osagai asko erabili ahal izan zituzten baina soilik mikrouhina. Batzuek postre hotzak egin zituzten batidoak esaterako baina askok betiko bizkotxoak egitera jo zuten. Hori bai, ukitu pertsonalarekin. Saria banatzeaz arduratu ziren Taxio Arrizabalaga eta Alaitz Mendizabal zinegotziak. Hauek epaile lanak egiteko hauren postre guztiak dastatu zituzten. Saria, Tati's-en bazkari edo afaria bost lagunentzako.



Boliviarekin elkartasuna.- Ostarte gazte taldeak Brijidatarren komentuaren pareko kalean postuak jarri eta umeentzako tailer ezberdinak prestatu zituen Bolivian UTASA proiektuan fundazioak egiten duen laguntza-lana ezagutarazi eta haren aldeko elkartasun mezua zabaltzeko asmoz. Goizetik hainbat burutzeko aukera izan zuten, batez ere txikienek, aurpegia margotu, pultserak egin, txapak prestatu eta. egiteko aukera paregabea eduki baitzuten. Horretaz gain, Bidezko Merkataritza-ko produktuak salgai jarri eta gainera, tonbola solidarioan parte hartzeko aukera izan zuten herritarrek. Arratsaldean, Sasoetan, futbito eta saskibaloitxapelketak antolatu zituzten. Eguraldi ona lagun, Bolivia aldera laguntza eta itzaropena bidali zituzten.

Xuban Intxausti Kazetari eta aurkezlea

“Jakinminaz edonora joan zaitezke”

ETBko Chiloe bidaia-saioko aurkezlea Tahiti, Lituania, Ekuador eta Holandan egon da

Zortzi urtean Bartzelonan Mediapro produktore eza-gunean lan egin eta gero Euskal Herrira itzuli da Xuban Intxausti lasarteoriatarra. Une honetan ETB-3an ematen ari diren Chiloe bidaia-saioren aurkezle eta gidolaria, Tahiti, Ekuador, Lituania eta Herbeheretan egon da eta bi saio prestatu ditu herrialde bakoitzeko. Gero ETB1ean eta ETB-2an ere emango dira, hemen gazteleraz, noski. Gainera Euskadi Gaztea irrastian ere ari da Dida saioan iritzi emaile.

Jon ALTUNA IZA

Duela hilabete batzuek, Tahiti, Ekuador, Lituania, Amsterdam eta Rotterdam-en egon da Xuban Intxausti lasarteoriatarra ETBko Chiloe saiorako irudiak grabatzen. Gero hemen prestatu ditu gidoia eta saioaren postprodukzioa. Une honetan Bilbon bizi da, "etxetik hurbilago".

Chiloe aurkezten duzu, askorengan inbidia eragingo duzu... Egia da jende askoren ametsa dela; askok nahiko luke horrelako lana, badirudi telebistako aurkezle edozeinek egin dezakeela, baina formazio bat ere eskatzen du. Ni zortzi urtean aritu naiz telebistan. Gainera naturala izan behar duzu, pertsona irekia eta emozioa transmititu...

Zuri erraza egin al zaizu?

Bai. Gauza bitxia gertatzen zait, natural izatea ez zait batera kostatzen, eta bidaia batean ondo pasatzea ez litzateke pagatu ere egin behar. Zortea daukat.

Normala da jendeak bidaiatu nahi izatea, bere lekutik ateratzea. Hala ere bidaiatu daiteke inguruan bertan ere, ez duzu oso urrun joan beharrik, bidaiatzerakoan kuriositatea baldin badaukazu, herrialde askotara joan zaitezke.

Bidaiatzea, oro har, gain baloratua ere badago.

Bisitatu dituzuen tokietatik zeinek eragin dizu zirrarak handiena?

Esperientzia politena Tahitiko izan da, batez ere gizarte hura gurearengandik urrutien dagoena delako; inpaktantea da kaxotxen arteko "paradisu" horretan bizitzea bera, zazpi egunetan bakarrik baldin bada ere. Oso polita izan zen, ia hiru egunetan barku batean ibili ginelako irlatik irlara estropada lasterketa bat grabatzen; hango urak, klima, dena,... oso bitxia delako eta sekulako hotel ederrean egon ginelako ere bai.

Ekuadorren ez ginen kostan egon baina oso esperientzia polita eta ezusteko handia izan zen. Quito hiriburu nagusia eta Cuencan ibili ginen, Paramo Andinoan, sumendi baten inguruan. Asko gustatu zaigu. Herrialde bateko esperientzia zaintzen zaituzten moduaren arabera neurtzen da sarri, eta Ekuadorreko turismo bulegoek oso ondo zaindu gintuzten. Hori nabaritzen da.

Lituania leku polita baino, historia interesgarria duena da, ezta?

Ez genuen uste Lituaniari buruzko programa onik egingo genuenik, eta onenatarikoak bertan egin ditugu. Ikusleak leku horietara bidaiatzeko gonbidatuz egiten dugu programa, eta, ikusleak ez du bakarrik turismoaren aldea kontutan eduki behar. Lituaniar, herrialde osoa iruditu zitzaigun oso aberatsa, historia interesgarria du, oso txikia da, bi milioi dira eta oso irekiak gainera.

Holandako bi hiritan ere egon zarete, zu, hiri zalea zara, ezta?

Egia da hiriak asko gustatzen zaizkidalda eta azkenaldian hirietan bizi naizela. Rotterdam eta Amsterdam ezagutzen nituen aurretik, hiri interesgarriak dira, baina beste era batera ikusi ditugu. Saiatu gara euskaldunak hara joaten direnean ikusten duten lehenengo gauza ez erakusten. Adibidez Amsterdamgo auzo gorrian ez ginen egon.

Hirien alde cool-a erakusten saiatzen gara, ikusle gaztearentzat edukiak sartzen, artea erakusten, artistak elkarriketatzen,...

Amsterdam-en gin edaria egin eta nahastu gabe edaten dutela erakutsiko dugu. Ez nekien nik horren inguruko izugarritzko tradizioa zutenik.

Heineken garagardo fabrika ere badago...

Bai Lasarte-Oriako institutuarekin joan ginen Amsterdam-era gaztetan eta egon ginen bisitan. Oraingoan ez.



Xuban Intxausti, Tahiti ateratako irudi batean.

XUBAN INTXAUSTI

Sorkuntza dut gustuko eta sorkuntza da irrastian iritzi politikoak ematea, arte proiektu bat egitea edo gidoi bat zerotik sortzea

Euskaldunekin egon al zarete?

Ez, ez dugu formula hori erabiltzen. Hau programa desberdina da. ETBn izan zen garai batean "Euskaldunak Europan". Guk bidai programa klasikoak egiten dugu.

Hiru lagun zoazte, zer moduzko elkarlana da?

Bai, kamara, programaren zuzendaria eta hiruok. Oso ondo moldatu gara. Telebistan lana egitea asko gustatzen zait, azken finean emozioa konpartitzen delako errodajeetan. Goizeko zazpietan altxatzen zara eta gaueko 23:00etan bukatzen duzu, baina talde lan hori, asko gustatzen zait. Aspalditik lan egin dut telebistan eta gauzarik politenatarikoa hori da.

Non ibili zara lanean?

Mediapro-n egon nintzen Bartzelonan lanean zortzi urtetan, 22 urterekin joan nintzen eta 30ekin utzi nuen. Denetarik egin dut, aurkezle, kamara, errealizadore, muntatzaile, gidoigile. Kamararen bi aldeak ezagutzen ditut.

Irrastian ere entzuten zaitugu?

Bai lehen Faktoriako tertulian

egoten nintzen, esperientzia polita izan zen, eta orain Gaztean nago, astelehen eta ostiralean, iritzi politikoa ematen, nahiko kritikoa, ez oso arrazionala, emozionala. Interesgarria da beti hiritar baten iritzia.

Dida saioa batzuei gustatzen zaie, besteei ez. Niri bai, ondo dago, ezagutzen ditut eta oso jende jatorra da. Irrati formularekin ados egongo zara ala ez, baina egon behar du horrelako programa bat euskaraz. Bakarra da. Dida-k audientzia handiagoa dauka Euskadi Irratiak baino eta hori kontutan hartzekoa da.

Komunikazioa, antzerkia eta artea uztartzen saiatu zara zure bizitza eta lanbidean...

Bai azken finean nire perfila nahiko multidiziplinaria da, Valentzian ibili nintzen arte munduarekin lotuta; gero, Mediapron lanean, ez neukan denbora asko, eta karrera artistikoa nahiko laburra daukat. Sorkuntza dut gustuko eta sorkuntza da irrastian iritzi politikoak ematea eta pentsatzea, arte proiektu bat egitea edo gidoi bat zerotik sortzea ere bai...

Zer moduz bizi da Salvadore Tutti?

Azken urteotan aparkatua daukat gaixoa. Gustatu zitzaidan proiektu hori, artista bat zerotik eraikitzea: Salvadore Tutti guztien salbatzailea, kritika eta ironia askorekin, bide zuzenetik eramango gintuen pertsona. Ez litzaidake inportako berpiztu eta honelako beste proiektuaren batean parte hartzea.

Performaktibitatea, performantzeak egitea gustuko al duzu?

Ora in bertan ez dut asko sinesten artean, aspertu egiten naiz. Baina pozik nago egin nituen gauzekin.

Azken lanetariko batek Etatregua izenekoak nahikoa hika mika sortu zuen. Treguaren aldeko kamisetak egin nituen eta jendeari janzteko eskatu. 2005ean polemikoa zena, gaur egun ez. Argi dago, gizartea eraldatzen ari dela denbora pasa ahala. Kasu honetan artea ez zen koadro batean, kamiseta batean baizik.

Zer moduz bizi zara Bilbon?

Lagun koadrila oso majoa daukagu Bilbon ere; etxetik gertuago nago, sarri hurbiltzen naiz gurasoekin eta arrebarekin egoteko, hilean behin edo, ahal badut koadrilarekin ere geratzen naiz, baina azken finean ez nago denbora asko.

Dena den ni oso pozik etortzen naiz, harro nago herrikoa izateaz, bertan jaio izanaz. 15 urterekin hasi nintzen Txintxarri artikuluak idazten eta horretaz ere harro nago.



Eguraldi zoragarria izan zuten Buruntzako mendi irteeran.



Tontorreko irudian, irribarretsu ageri dira gailurra egin zuten gazteak Nafarroako armarrria eskutan dutela.

Jalgi Hadi Garaipenera!, bideak irekiz

► *Herriko gazte mugimenduak hainbat ekimen burutu zituen aste osoan zehar, osteguneko greban aktiboki parte-hartuz eta larunbatean mendi-martxa, hitzaldia eta bazkaria antolatuz*

Herriko gazte mugimendua lan asko egiten ari da azken hilabeteotan, Jalgi Hadi Garaipenera! ekimenaren baitan. Nafarroako konkistaren 500. urteurrena gogoratu eta Euskal Herriaren sustraiak zeintzuk diren ezagutzeko konpromisoa hartu baitute, etorkizuna nazio ikuspegi batetik eraiki ahal izateko asmoz. Hurrengo zita apirilaren 6 eta 7an izango dute, Saratik Lesakarainoko bidea egingo baitu aurtengo 2012ko Gazte Martxak. Apirilaren 8an berriz, Aberri Egunaren harira, Iruñeara joango dira Independentistak sarearen deialdiarekin bat eginez.

Jon ALTUNA EGITEGI

Buru-belarri ari dira Lasarte-Oriako gazteak Nafarroako konkistaren 500. mendeurrena ezagutzeko sortu den Jalgi Hadi Garaipenera! dinamikan parte hartzen.

Ekimen horren barnean kokatzen dira asteburuan izandako mendi-martxa, hitzaldi eta bertso-bazkaria.

Horretaz gain, martxoaren 29ko greban aktiboki parte hartu zuten, eta aurrera begira, apirilaren 6 eta 7an izango den Gazte Martxa dute begiz jota. Bertatik, Iruñean ospatuko den Aberri Egunera joateko asmoa dute.

Asteazkenean, bideoak

Hiru dokumental ikusi zituzten asteazkenean Xirimirin bildutako 25 bat gaztek.

Lehenak, Gipuzkoaren sorrera prozesua azaltzen zuen; bigarrena, Nafarroako konkistaren ingurukoa izan zen; eta azkena berriz, Baskoiek inbadiatuak izan ez zitezen jarrirako erresistentziaren gainekoa.

Osteguneko grebara

Martxoaren 29ko greba eguneko greba ere ez zuten lanik egin, areago, aktiboki parte-hartu zuten lanuztearen deialdia gazterien artean zabalduz eta ostegun arratsaldeko manifestazioan egonez.

Gainera, burujabetza lortze bidean, grebak izan zuten garrantzia azpimarratu zuten gazte mugimenduko kideek: "Badakigu grebak ez duela ezer konponduko, baina geroa begira oinarri sendoak jar ditzake, Estatu Espainiarraren sareetatik askatuta, etorkizun oparoa eraikitzeko".

Asteburuko ekintzak

Goizean goizetik hasita, larunbatean hainbat ekimen burutu zituzten Jalgi Hadi Garaipenera! dinamikan baitan.

Hamabost bat gaztek osatutako mendi espedizioak Buruntzara egin zuten irteera eta goian talde argazkia atera zuten.

Eguerdi partean, Nestor Lertxundi hernaniarrak Nafarroaren konkistaren inguruko "Ezkutua-eskura" hitzaldi parte-hartzaile bat eskaini zuten, 778. urteko Orreagako Gudatik hasita, 1524an Hondarribia -azken gotorleku nafarra- erori zen arte gertatua urratsez urrats azalduz.

Hitzaldiak iraun bitartean hainbat galdera egin zizkioten eta hauek erantzuteaz gain, ikur eta sinbologia nafarren inguruko xehetasunak eman eta hausnarketarako bidea ireki zuten entzuleei.

Eguna amaitzeko, Xirimiri elkartearen bazkaria egin eta bazkalostean Beñat Iguaran

amasarra eta Mikel Artola alegiarra aritu ziren kantuan, elkarri eta entzuleei zirika, gaitztaile lanetan Ane Labaka bertsolaria zutela. Ostean, herriko tabernetan zehar ibili ziren trikipoteo alai bat eginez.

Gazte Martxa 2012

Apirilaren 6an Saran abiatu eta 7an Lesakan bukatuko den Gazte Martxan parte hartzera deitu du Lasarte-Oriako Jalgi Hadi Garaipenera! gazte ekimenak.

Antolakuntzatik azaldu dutenez, eskualdeko autobusa antolatuko da inguruko 50 bat gazte joango baitira Gazte Martxara, oraindik autobusa zein herritan izango den zehaztu gabe badago ere.

Joateko asmoz dabilena garaiz dabil oraindik, Saran bertan, martxaren hasieran eros baitezake bi egunetako bonoa 30 eurotan.

Apirilaren 8rako berriz, Iruñean Independentistak sareak deituriko Aberri Egunera joateko deia zabaldu dute.



Nestor Lertxundi adituak Orreagako batailatik hasita, Nafarroa konkistua izan arteko bilakaera historikoa azaldu zuen.

ADURIZ DE LASARTE S.A

Solomoa baratxuritan

Odolkia- Solomo ontzua


Etxeko txorizoa

Tripakiak- Saltxitxak

Basurde burua

Txistorra

Baserri pateak



BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • Tel: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

Lasarte-Oria

GIMNASTIKA.-

LOKEko gimnastak Gipuzkoako txapelketan

Arroyo, Aguado, Gomez eta kadete taldea Gipuzkoako txapelketan lehiatuko dira

Lehenengo asteburuan, martxoaren 25ean, LOKEko gimnastek Eskolarteko eta Amateur mailako txapelketako bigarren saioa izan zuten. Honetan, Aizpea Arroyok, Ariadne Aguadok eta kadete taldeak Gipuzkoako txapelketarako txartela lortu zuten. Asteburu honetan, berriz, LOKEko gimnasta guztiek Andoaingo taldekoekin batera erakustaldia ederra egin zuten Udal kiroldegian.

LOKEko gimnastak aste hauetan lehiaketetarako prestatu dira burubelarri eta emaitzak dira.

Lehenengo asteburuan, eskolarteko eta amateur mailako txapelketako bigarren saioan izan ziren Bergaran. Honetan, Aizpea Arroyok, Ariadne Aguadok eta kadete taldeak Gipuzkoako txapelketan parte hartzeko sailkatu ziren. Garazi Gomezek ere sailkapena lortu zuen, nahiz eta ez lehiatu.

Aizpea Arroyo juniorrak lan ona egin zuen eta 3. izan zen xingolarekin lan egiten. Honela bi saioetan lortutako emaitzekin, sailkapen orokorrean bigarren postua lortu zuten.

Maila berean, Ane Ayestaranek parte hartu zuen eta 13. sailkatu zen bai bigarren saio-

an, baita sailkapen orokorrean ere.

Kadete mailan, borrekin lan egin behar izan zuten. Ariadne Aguadok 7. postua lortu zuen eta horrek sailkapen nagusiko 9. postuan jarri zuen.

Bestalde, kadete bikotean, Maria Millanen txanda izan zen eta 23. postuan amaitu zuen. Honela, sailkapen orokorrean hamaikagarren izan ziren.

Kadete taldeak ez zuen egun ona izan eta 9. postua lortu uztai eta pilota lanean. Hala ere, sailkapen nagusian 4. postuan amaitu zuten.

Gipuzkoako txapelketa

Gauzak honela, Maite Rueda entrenatzaileak azaldu digunez, Aizpea Arroyok, Ariadne Aguadok eta kadete taldea



Lan txukuna burutu zuten gimnasta guztiek jendez lepo zegoen Udal kiroldegian. Irudian, Lasarte-Oriako kadeteak.

maiatzaren 26an Bergaran egingo den Gipuzkoako txapelketan izango dira. "Kadete bikotea postu batetara geratu da. Izan ere, txapelketarako 10 bakarkako eta 5 talde" sailkatzen baitira.

Era berean, senior mailan lehiatzen den Garazi Gomez ere finalean egongo dela aurreratu digu. "Garazi lesionatua dago eta ezin izan zuten

bigarren saio honetan parte hartu. Baina bere mailan bost gimnasta bakarrik daude eta medikuaren frogagiria erakutsita Gipuzkoako txapelketan izango da" adierazi digu.

Erakustaldia

Hitzordu garrantzitsu hori baino lehen, LOKEko alebin eta infantil taldeek Udaberri txapelketako bigarren saioa

izango dute, maiatzaren 20an.

Eta hau prestatzeko, larunbata honetan erakustaldi bikaina egin zuten LOKEko maila guztietako gimnastek Udal kiroldegiko kantxan. Herriko neskato eta gazteek haien trebetasuna erakutsi zuten hainbat tresnekin. Hauekin batera, Andoaingo Kirol taldeko gimnastak ere izan ziren.

MENDIA.-

Jaizkibel menditik zeharkaldia

Ostadar SKT-ko Mendi sailak Jaizkibel mendiaren zeharkaldia antolatu du apirilaren 15, iganderako.

Taldeko arduradunek, azaldu digutenez, 7 orduko ibilaldia izango da. "Zailtasuna ez da handia izango, baina 20 kilometroko ibilbidea da," azpimarratu dute.

Azaldu digutenez, Pasaia San Pedron egingo dute hitzordua interesatuek. Gero, Donibanera txalupaz igaro eta zeharkaldia hasiko da. Mendi ibilbidea kostaldetik egingo da eta Hondarribin amaituko da. Buelta autobusez egingo dutela jakin arazi dute.

Eraman beharrekoak

Era berean, antolatzaileek ohartarazi nahi dute bidean ez dagoela urik eta horregatik, parte hartu nahi duen orok ura soberan eramán dezala.

Honetaz gain, janaria eta



Ostadar Mendi Sailak Jaizkibel menditik ibilaldia antolatu du. CLUB VASCO CAMPING

txaluparako eta autobuserako dirua eramán behar dute partehartzaileek.

Izena ematea

Zeharkaldi honetan parte hartu nahi duen orok izena eman

behar duela aipatu dute Ostadar Mendi saileko lagunek.

Honetarako, telefono zenbaki honetara deitu beharko dute (639056967), Soniaren izenean. Azken eguna apirilaren 13a ostirala izango da.

OHARRAK.-

Helduentzako igeriketa ikastaroa

Lasarte-Oriako Udal Kirol zerbitzuak apirilaren 11tik maiatzaren 25era, helduentzako igeriketa ikastaroa eskainiko du udal kiroldegian.

Hastapen eta erdi mailako ikastaroa da. Hau astelehenan, azteazkenean eta ostiraldetan izango da, arratsaldeko 20:30ean. Izena emateko azken eguna apirilaren 4a, asteazkena da.

Ikastaroak 105,70 euro balio du eta kiroldegiko bazkide direnentzat 58,70 euro.

Informazio gehiago nahi izanez gero kiroldegiko bulegora hurbildu edo 943 376 182 telefonora dei dezakezue.

Kirol instalazioak Aste Santuan

Udal Kirol zerbitzuek jakin arazten dute Aste Santuko oporretan apirilaren 5etik 9ra kiroldegia irekia egongo dela. Orduetgia goizeko 9:00etatik 13:00etara izango da.

Michelingo Kirolgunea, berriz, itxia egongo da egun hauetan.

Ostadar SKT-ko bulegoa itxia

Ostadar SKT-ak jakin arazten du, Aste Santuko oporretan bi astez, hau da, apirilaren 2tik 15era Ostadarreko bulegoa itxita egongo dela.



Agenda

Osteguna 5tik Astelehena 9ra arte, Lasarte-Oria



Aste Santua iritsi da

Lasarteoriatar ugari oporretara joango den arren, Aste Santuan herrian geratu-ko dira asko. Egun hauetan elizkizunak eta gurutze bideak izango dira nagusi herrian. Ondoan agertzen den koadroan kontsulta ditzakezue San Pedro parro- kian, Arantzazuko Ama elizan eta Brigi- tarren komentuan izango diren ekintza desberdinak.

Elizkizunak

ARANTZAZUKO AMA ELIZA
Osteguna 5, 11:00etan
Aitormena. Elebietara.
Osteguna 5, 19:00etan
Meza Santua. Gaztelaniaz

SAN PEDRO PARROKIA
Osteguna 5, 19:00etan
Meza Santua. Euskaraz

BRIGITARREN KOMENTUA
Osteguna 5, 17:30ean
Meza Santua. Elebietara.
Osteguna 5, 22:00etan
Ordu Santua. Gaztelaniaz

SAN PEDRO PARROKIA
Ostirala 6, 08:00etan
Gurutze bidea Kalbario bidetik.
Ostirala 6, 18:00etan
Pasioa. Gaztelaniaz.

ARANTZAZUKO AMA ELIZA
Ostirala 6, 10:00etan
Gurutze bidea Azkorterera.
Ostirala 6, 18:00etan
Pasioa. Euskaraz.

BRIGITARREN KOMENTUA
Ostirala 6, 11:00etan
Gurutze bidea kaperan.
Ostirala 6, 16:30ean
Pasioa. Elebietara.

ARANTZAZUKO AMA ELIZA
Larunbata 7, 21:00etan
Pazko-gaubela. Elebietara.

BRIGITARREN KOMENTUA
Larunbata 7, 19:00etan
Pazko-gaubela. Elebietara.

Lasarte-Oria

Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Osteguna 12, 21:30ean

Okendo zinema taldearen eskutik, "Urte berri on, amona!" filma eskaini-ko da. Euskaraz. Sarrera, 5,50 euro.


MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea 15, 17:00etan

Haurren zinema atalean, "Malutatxo" marrazki bizidunetako filma eskaini-ko da. Euskaraz. Sarrera, 3,40 euro.

Igandea 15, 19:30ean

Okendo zinema taldearen eskutik, helduentzako zinema atalean, "Urte

berri on, amona!" filma eskaini-ko da. Euskaraz. Sarrera, 5,50 euro.



Dantza

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Larunbata 14, 20:00etan

Kukuka antzerki eta dantza eskolako X. urteurrena dela eta, Alurr taldeak "Izanak dirau, 1512" dantza garaikide-ko ikuskizuna eskaini-ko du. Sarrera online, 3 euro; leihatilan, 3,40 euro.

Musika

ABEND KAFE-ANTZOKIA
Ostirala 20, 23:45ean

"Rise to Fall" eta "Lion Head" taldeen metal kontzertua izango da. Sarrerak aurrez 10 euro eta egunean bertan, 12 euro.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Apirilean zehar

Inhar Mutiozabalek Indian ateratako argazkien erakusketa ikusgai dago. Koadroak salgai daude, zerbitzariei galdetu.

Herritarren txokoa

Manuel Lekuona itxia

Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kul- tur-etxea apirilaren 5etik 9ra itxia egongo da, beraz, ez da bertan eki- taldi, tailer edo kurtsorik izango.

Galdutako agenda

Poltsiko agenda bat galdu zen duela bi aste, Orbelako autobus geltokian. Aurkitzen duenak dei dezala, 639 220 506 zenbakira.

Lloret de Mar-era bidaia

Biyak Bat Erretiratuen elkarteak Costa Brava-ra eta zehazki Lloret de Mar-era hamahiru egunetako bidaia antolatu du, maiatzaren 22tik ekainaren 3ra.

Lau izarretako hotelean izango da egonaldia eta otordu eta txangoak prezioaren barne daudela azaldu dute.

Irteeraren prezioa elkarteko bazki- deentzat 475 eurotako da eta bazki- deak ez direnentzat, 527 eurokoa. Pertsona bakarrarentzako gela eska- tzen duenak 180 euroko gehi karga ordaindu beharko du.

Informazio gehiago edo izena emateko Biyak Bateko egoitzeko bulegora hurbildu behar da, 10:30ak eta 12:30ak artean.

Marrazki eta pintura klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jaki- narazten du, marrazki eta pintura kla- seetan izena emateko aukera dagoe- la. Klaseak Kultur Etxean dira asteaz- ken eta ostiraletan 18:30etik 20:30era eta larunbatetan 09:30etik 11:30era.

Gasolina merkeago Aterpea- rekin

Oriako Allerru gasolindegian deposi- tua bete eta Aterpeako txartelarekin ordaintzen duten herritarrek, ordain- keta egiteko garaian, %2ko behera- pena izango dutela gogoratu du Lasarte-Oriako merkatarien elkarteak.

Aterpea Merkataritza elkarteak martxan jarritako kanpaina da eta txartelaren erabilera sustatzea du hel- buru nagusia.

Haurren txokoa

Aurkitu 10 loreren izena

A	H	S	J	E	K	Y	Q	S	N	Z	F	H	R	A
E	U	R	S	X	G	J	B	B	K	F	B	S	E	L
R	C	E	A	I	L	E	M	A	K	X	A	R	L	E
O	L	W	T	N	D	V	V	F	F	N	O	P	A	V
L	V	G	Y	W	I	T	P	A	E	L	S	E	R	N
I	F	R	M	M	W	L	F	G	I	D	R	N	R	N
K	G	J	U	U	I	K	E	X	B	R	Q	T	O	A
Z	P	R	D	W	W	W	T	B	X	W	Y	S	S	L
U	Z	F	E	S	Y	I	T	B	A	W	L	A	A	I
G	H	O	K	Q	B	R	N	N	U	R	E	M	A	L
E	W	G	A	R	A	N	I	O	A	E	K	E	Q	C
A	N	E	Z	U	Z	A	Z	V	S	K	U	N	D	G
L	Y	H	A	X	Z	Q	H	V	X	X	K	D	H	B
Y	M	F	T	K	J	Q	E	P	T	K	N	U	S	B
Q	Z	M	I	W	R	Y	T	U	L	I	P	A	N	A

euskal.info

Bazenekien...

...uretako insekturik handiena uretako txintxea dela. Venezuelan eta Brasilen bizi da eta 11,5 cm neurtzen ditu.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argi- taratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Lasarte-Oriako mugaz-muga ibilaldia

- ▶ Apirilaren 21ean, herria, historia eta bitxikeriak ezagutzeko aukera eskainiko du Oinatz-ek
- ▶ Larunbatean goizeko 9:00etan Jalgitik atera eta bi ibilbide egongo dira, eroso eta aldapatsua

Oinatz taldeak Euskal Herriko hainbat txokotara irteerak antolatzen dituela jakina da. Hurrengo aldiz, Lasarte-Oria bertan burutuko da. Iaz bezala, Lasarte-Oriako mugak, herriko bitxikeriak eta aspaldiko kontuak ezagutzeko aukera eskainiko die herritarrei apirilaren 21ean, larunbata. Goizeko 9:00etan Jalgitik atera eta bi ibilbide desberdin egiteko aukera izango da, bat mendi gainetatik eta bestea erosoagoa, nahi duten guztiek parte hartzeko aukera izan dezaten.

Jon ALTUNA IZA

Sara eta Zugarramurdiko Leize-zuloetara egin zuten irteeraren ondoren, Oinatz taldeak herrian bertan egingo du hurrengo irteera. Mugarriz mugarri, herriaren mugak eta txoko ezberdinak ezagutzeko aukera izango dute herritarrek. Gainera tokian tokiko bitxikeriak eta istorioak kontatuko dituzte.

Iaz ere antolatu zuten antzeko ibilaldia eta arrakasta handia izan zuen. Aurten bi ibilbide izango dira, mendian ibiltzen ohituta daudenentzat luzea eta aldapatsua eta ohituta ez daudenentzat erosoagoa, edonork egiteko modukoa. Bi taldeak elkarrekin aterako dira Jalgitik, eta hamaiketako egiteko elkartuko dira ibilbideko puntu batean.

Gainera, bukaeran, nahi dutenek, Ikatz Mendi jate-txean bazkaltzeko aukera izango dute. 13 euro balio du menuak. Haurrentzat kroketak, makarroiak eta postrea



Lasarte-Oria zeharkatuko dute apirilaren 21ean mugarriz mugarri. Iaz gustura geratu ziren parte hartu zutenak. Irudietan taldea mendi aldean eta Oria auzoan.

izango dira eta helduentzat entsalada, saiheskia eta etxe-ko postrea. Ibilaldian parte hartzeko eta bazkarira joateko asmoa dutenek Ttakunen eman beharko dute izena.

Itzulia

Zalantzarik gabe bira interesgarria eta herria ezagutzeko modu berezia izango da eta parte hartzen dutenek datu historiko, demografiko eta bitxikeriak ezagutuko dituzte. Herri erditik atera eta Lasarte-Oriari itzulia emango diote apirilaren 21ean goizez Oinatzek antolatutako irteeran parte hartzeko prest direnek: Zubieta aldea, hipodromoa, Oria, Urnieta eta Hernani aldeak,...

Oinatzen helburua, jakina denez, tokiak ezagutzeaz gain bertako historia ere ezaguta-



raztea da. Hori egin dute joan diren toki guztietan eta oraingoan herriko kontuak ezagutzeko aukera izango dute herritarrek. Gainera denek izango dute dakitenaren berri emateko aukera.

Herri bitxia da dudarik gabe Lasarte-Oria, Gipuzkoako gazteena 1986an sortu baitzen, herri izan gabe bere historia duena, hedadura gutxikoa, herrialdeko txikiena eta beraz biztanle dentsitate

handikoa. Hala ere, ibaia eta mendi aldea ere baditu.

Erreferentzia historikoak

IX. mendetik Lasarte-Oriako etxe eta bizimoduaz dauden erreferentziak aipatuko dira ibilaldian zehar, besteak beste, baserri, burdinola, dorretxe, ermita, eliza, errota...

Jada XIX. mendetik aurrera ezagunagoa da historia eta datu gehiago ageri dira, errepi-de berriak, trenbideak, industrializazioa, lehenengo eskola publikoa, gerla karlistak... eta XX. mendeko hainbat bitxikeria ere aipatuko dira, lehen telefono zentrala, Golf Zelaia, hipodromoa, "milioi erdiko saria" 1922ko zaldi lasterketa ospetsua, aerodromoa, Lasarteko auto zirkuitoa, Michelinen sorrera, 36ko gerlako kontuak eta abar.

Arkruppe

Etorri gurekin ospatzera!

Inaugurazioa Apirilak 15

Eguerdiko 13:00tan

Errazioak
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Entsaladak

Largoenea 1, behea
20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361742